

IKASTAROAK

ORBELDI DANTZA TALDEAREN IKASTAROAK

Non: Kiroldegian.
Kuotak: Helduak 90€ / Haurrak 70€
Antolatzailea: Orbeldi Dantza taldea.
E-maila: orbeldi.udt@gmail.com
Izen-ematea: irailaren 1etik 15era egongo da irekita.
Link honi jarraituz eman daiteke izena <https://forms.gle/PcNCWPyigzWXnm4X9>
Aurrez aurreko izen-ematea irailaren 15ean, kiroldegian, arratsaldean.

HELDUAK

- **Euskal Dantzak Oinarrizko Taldea:** astelehenetan.
- **Plaza Dantza Taldea:** asteazkenetan.
- **Euskal Dantza Taldea:** asteartetan.

HAURRAK

LH1etik - DBHra
Ordutegiak:

- **LH1-2:** astelehenetan edo ostiraletan 16:45-17:45
- **LH 3-4:** astelehenetan edo ostiraletan 17:45-18:45
- **LH 5-6:** asteazkenetan 16:45-17:45 edo 17:45-18:45
- **DBH** ordutegia zehazteke.

SANTUENEA ELKARTEAREN IKASTAROAK

Irailaren jarraipena emango zaie AEROYOGA eta JOSKINTZA tailerrei.
Ordutegiak irailako lehen astean zehaztuko dira.
Informazio gehiago izateko 670 027731 telefonora deitu.

EINEAN GURASO ESKOLAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK 2023

Antolatzailea: Einean elkarte.

YOGA

Irakaslea:
Katia 636 71 15 14
Sebas 605 72 28 25
Luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

PINTURA

Irakaslea:
Susana 609 41 38 83
Olea, akuarela, pastela...

ESKULANAK

Irakaslea:
Susana 609 41 38 83
Teknika ugari ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

JOSTEKO TAILERRAK

Irakaslea:
Ione 673 64 29 32
Sormena eta joskintza.

ETUMETA EUSKALTEGIKO MATRIKULAZIOA

Etumeta AEK euskaltegiak zabalik ditu ateak ikastaro berrien gaineko informazioa emateko. Matrikulaldia hila bate osoan egongo da zabalik, eta nahi duenak bertaratuta, deitu edo mezu bat utz dezake. Horretarako 607 609379 telefonora, deitu edo usurbil@aek.eus helbidera mezuia idatzi. Irailako ordutegia, berriz, 11:00-13:00/17:00-19:30 izango da.

MINTZALAGUN

Euskara praktikatu edo praktikatzeko lagundu nahi baduzu, abian da Mintzalagun egitasmoan izena emateko garaia. Horren bitartez, euskara jakin bai, baina inorekin hitz egiten ez dutenek, edo euskara praktikatzeko laguntzeko prest daudenek horretarako aukera izango dute. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, deitu Etumeta AEK euskaltegira (607609379) edo idatzi usurbil@aek.eus helbidera. Parte hartzea dohainik da, eta norberaren ordutegiaren arabera osatzen dira taldeak. Eskatzen den bakarra da astean behin ordubetez euskaraz aritzeko konpromisua hartzea. Animatu!!!

Kale Nagusia 43
Tel.: 607 609 379
usurbil@aek.eus
www.aek.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK



IKASTARO ETA MINTEGIAK

AURREZ AURREKOAK

AISIA ETA ENTRETENIMENDUA

- **Musika aplikazioak zure Smartphonean** (2 ordu)
Irailak 1 18:00 - 20:00

OINARRIZKO INTERNETA

- **Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi** (20 ordu)
Irailak 4-15 16:00 - 18:00

OFIMATIKA TRESNAK

- **LibreOffice** (20 ordu)
Irailak 18-29 18:00 - 20:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabal.

Irailaren Kzgunea: arratsalde 16:00-20:00
Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

USURBIL MUSEO IREKIA BISITA GIDATUAK

Usurbil beti izan da Euskal Herriko kultur-gune erreferentzialetako bat eta bere lekua irabazi du Euskal Herriko kulturaren mapan. Usurbile-ra baldin bazatoz, bere kaleetan murgiltzea eta paseatzea nahikoa izango duzu edonora begiratu eta artelan bat aurkitzeko. Kalean, plazetan, hormetan... Lehengo zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak nonahi izango dituzu zure begiradaren zain. Gida baten laguntzaz ezagutu ahal izango dituzu artelan guzti hauek ordubeteko bisita gidatuan.

Sutegitik abiatuta Prezioa: 3 € (18 urtez beherakoek doan)
Eskudirutan ordainduko da bisita gidatua hasi baina lehenago.

Gehieneko bisitari kopurua: 14

Izen-ematea <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00
Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Itxita
Goizez

●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
11	12	13	14	15	●	●	●	●	●
18	19	20	21	22	●	●	●	●	●
25	26	27	28	29	●	●	●	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara
eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus

Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



USURBIL KULTURA

2023ko iraila

	Ostirala 18:00 Santuenean	HAUR JOLASAK ETA AFARI MERIENDA SANTUENEAN	8
	Ostirala 23:30 Santuenean	THE HASTELENE'S ETA MUXUTRUK ERROMERIA	15
	Larunbata 16:00 Santuenean	HAURRENTZAKO ANTZERKIA: PIRATA GARRAPATA	16
	Larunbata 00:00 Santuenean	DJ GAUA: DJ FANTASIA, DJ MAIK ETA DJ FI / DJ GURRU / DJ AZIDO DOMINGO	16
	Igandea 19:45 Santuenean	HISPANOAMERICA MARIATXIAK	17
	Ostirala 16:00 Alkartasuna Kooperatibari	ETXEAN MUZTIOA EGITEN IKASTEKO TAILERRA	22
	Ostirala 22:00 Zubietako frontoian	ZUMETA 23 DOKUMENTALAREN AURKEZPENEA ETA "PERU GALBETE ETA GU" TALDEAREN MUSIKA EMANALDIA	22
	Larunbata Goiz eta arratsalde, muralaren aurrean	XUMETIK HERRI JAIALDIA	23
	Ostirala 19:30 Aginagako Eliza Zahar aurrean	"SON DE HOY" TALDEAREN KONTZERTUA	29
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU-JIRA KALEZ KALE	30
	Larunbata 18:30 Aginagako Eliza Zahar aurrean	JON OSTOLAZA TRIKITILARIA	30
	Larunbata 23:30 Aginagako frontoian	LAIOTZ TALDEAREKIN ERROMERIA	30
	Larunbata 03:00 Aginagako Eliza Zahar aurrean	JOTATXO DJa	30


IKASTAROAK

ORBELDI DANTZA TALDEA	DANTZA IKASTAROAK HAURRENTZAKO ETA HELDUENTZAKO
SANTUENEA ELKARTEA	AEROYOGA ETA JOSKINTZA
EINEAN ELKARTEA	YOGA, PINTURA, ESKULANAK ETA JOSTEKO TAILERRAK
ETUMETA EUSKALTEGIA	EUSKARA IKASTAROAK ETA MINTZALAGUN

2023ko IRAILA

USURBIL Kultura

XUMETIK HERRI JAIALDIA IRAILAK 23



Haur jolasak eta afari-merienda Santuenean

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.
Laguntzailea: Usurbilgo udala.
- Haur jolasak.
- Ikasturte hasierako afari-merienda.
Guztia musikaz girotua.
Eguraldi txarra bada, frontoian.



IRAILAK 15-16-17 SANTUENENKO JAIK

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

IRAILAK 10, IGANDEA

Balkoiak apaintzeko lehiaketaren hasiera (zenbakiak banatuko dira)

IRAILAK 15, OSTIRALA Mozorro eguna

16:30 Ur jolasak.
17:00 Txupinazoa. Ondoren, globo gerra.
18:00 Txokolatada. (Zaharren Egoitza)
18:15-18:30 Patata tortilla lehiaketarako tortilla entregatzea.
18:30 Karro-kalejira eta poteo moztarotua. Ondoren, buruhandiak.
21:00 Patata tortilla lehiaketaren irabazlea.
Ondoren, bakoitzaren tortillekin, auzo afaria.
23:30 Kontzertuak: THE HASTELENE'S eta MUXUTRUK ERROMERIA.
Ondoren, txosnan jarraituko dugu parranda.

IRAILAK 16, LARUNBATA Ume eta kuadrillen eguna

10:00 Umeen tailerrak.
12:00 QUE TOKE EL DE ALAU txaranga.
13:00 Buruhandiak.
14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira)
15:30-16:00 Muserako izen-ematea.
16:00 Mus txapelketa.
16:00 ANTZERKIA: Pirata Garrapata.
17:30 Txokolatada. (Tragoxxa)
18:30 Buruhandiak eta KE TOKE EL DE AL LAU txaranga.
19:00 Sardin jana.
21:00 ANKOKER trikipoteoa.
00:00 Dj Gaua: DJ FANTASIA, DJ MAIK eta DJ FI / DJ GURRU / DJ AZIDO DOMINGO.

IRAILAK 17, IGANDEA

09:00 9:00 Esnadeia JON&JON.
11:00 Apar festa.
11:00 Toka eta igel txapelketak.
12:00 Hamaiketako txosnan.
12:00 Zantantzarrak.
14:00 Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa.
(Entsalada, oilasko errea, postrea eta edaria.
Tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxxan, Aitzagan eta Artzabalen.)
18:00 Buruhandiak eta Karro-kalejira.
19:00 Piper dastaketa.
19:30 Balkoi apaintze lehiaketako eta argazki lehiaketako saridunak.
19:45 HISPANOAMERICA MARIATXIAK.
21:00 Festen amaierako traka.

Etxean muztioa egiten ikasteko tailera

Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.
Izen-ematea: doan.
www.alkartasuna.eus
alkartasuna@usurbil.com
edo 943 361114 telefonon.



Etzeko sagarra baliatzeko eta kalitatezko sagar muztio pasteurizatua egiten ikasteko tailerra.

“Zumeta 23” dokumentalaren aurkezpena eta “Peru Galbete eta gu” taldearen musika emanaldia

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Zubietako Herri Batzarra.

Zuzendaritza Oskar Alegria / **Kamerak** Juanfe Garcés, Beñat Gereka, Luis Jambrina / **Audio eta soinu-postprodukzioa** Luca Rullo / **Edizio eta irudi-postprodukzioa** Luis Jambrina, Aitor Oñederra / **Makillajea** Oihana Garde / **Atrezzo eta laguntzaileak** Alicia Otaegui, Elias Alegria, Jon García Olabarri.

Pilotari pintoreak: Maite Ortiz de Mendibil, Manex Urtasun.

Kolore nahasketa, muralaren inspirazioa: Koldobika Jauregi.

Musika: Peru Galbete + “Urtsua uda”, Mikel Laboa.

Ahotsak: Agurne Alkorta, Arrate Eizagirre, Maria Jesus Tolaretxipi, Antonio Iparragirre, Iñaki Zugasti, Aitor Agirre, Aintzane Aizpurua, Nekane Zaldua.



ZUMETA 23. Duela mende erdi, Jose Luis Zumeta artistak bere lanik ikonikoena utzi zigun bere herriaren bihotzean: Usurbilgo frontoian. Egun bi pilotari-margolarik kolore festa bat ospatu dute bere omenez.



PERU GALBETE ETA GU: BEIRATU


Peru Galbeteren laugarren diskoa da Beiratu. Bizitzari begietara begiratu, edo beiratu. Beiratzea ere badelako gauza bati beiraren ezaugarri edo itxura ematea, eder mantendu dadin.

Hirukote akustiko formatuan dator Peru, Idoia Arizaleta gitarra eta teklatuan eta Santi Etxeberria kontrabaxuan.

Xumetik herri jaialdia

Antolatzailea: Usurbilgo Kulturgunea.

11:00-13:30 Arte plastikoen erakusleho eta tailerrak herriko sortzaileekin.
18:00 “Usurbil museo irekia” ibilaldi girotua.
22:30 XUMETIK ikuskizuna. Muralaren inguruko gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez.



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.



Gaztelekuan 12 urtetik aurrerako gazteek parte hartzen dute. Irailaren 11tik aurrera izango duzue irekita ohiko ordutegia-rekin:

Astelehena: 16:30-19:30
Osteguna: 16:30-19:30
Larunbata: 16:00-19:00

Informazio gehiagorako

Informazio gehiagorako Gaztelekura etorri aipatutako ordutegian edo gaztelekuausurbil@gmail.com helbidera idatzi.

Gaztelekua, San Inazio kalea 3. Telefonoa: 688 713838

San Praixku jaiak Aginagan

Antolatzailea: San Praixku Jai Batzordea.



Aurten, San Praixku Jaiak irailaren 29 eta 30ean eta urriaren 1, 4, 6 eta 7an izango dira.

IRAILAK 29, OSTIRALA

18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!
19:00 Txosna irekiera.
19:00 Buruhandiak.
19:00 “Son de hoy” talde kubatarren emanaldia Eskola Txikiaren aurrean.
21:30 Pilota Jaialdia Ariztitxo Pilotalekuan (sarrera 12 €).
1. partida: Gaztetxoak
2. partida: Goiuri Zabaleta - Itxaso Erasun Vs Miriam Arrillaga - Nora Mendizabal
3. partida: Alberdi II - Aranguren Vs Artola - Iztueta
Gaztetxoaren partidaren Enaitz Errastik hartuko du parte, emakumeenean Miriam Arrillagak eta gizonezkoenean Aitor Aranguren.

IRAILAK 30, LARUNBATA

05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.
11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
18:00 Txosna irekiera.
18:30 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa Eskola Txikiaren aurrean.
Ondoren Herri poteoa.
21:00 Herri Afari zoragarria. Sarrerak Arraten, 30 € helduak eta haurrak 12 €.
23:00 Txosna irekiera.
23:30 Erromeria frontoian LAIOTZ TALDEA.
03:00 Eliza Zaharrean DJ JOTATXO.

***** AURRERAPENA *****

Frank Delgado kubatarren kontzertua

Urriaren 8an, Frank Delgado kubatarren kontzertua izango da Sutegin. **Sarrerak** irailaren 15etik aurrera jarriko dira salgai usurbilkultura.eus-en

